



Getariako Udala

Irteera : Z/21-00109

Data: 2021/02/15 - 09:54:38

Espediente kodea: 2020HPBE0001

Titularra: EUSKO JAURLARITZA, LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

Haritz Alberdi Arrillaga, Getariako Udaleko alkateak, bere izena eta ordezkartzan,

AURREKARIAK

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak 2020ko abenduaren 1ean emandako Aginduaren bidez hasierako onespena eman zaio Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziari.

Agindu horren jakinarazpena Getariako Udalari 2020ko abenduaren 10ean iritsi zitzaion. Bestetik aginduaren iragarkia 2020ko abenduaren 10eko (236 zbk.) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta bertan jasotzen zen 45 laneguneko epea hasten zela egoki iritzitako txosten eta alegazioak egiteko.

PLANGINTZAREN HELBURUA

Plangintzaren helburua, Getariako Arau Subsidiarioetako (AASS aurrerantzean) XII HA PORTUA eremuko antolamendu xehatuko determinazioak ezartzea da, arauak hala eskatzen dutelako.

Honekin batera, Getariako Arau Subsidiarioetan eremu honetako eraikigarritasuna %15raino haztea onartzen da. Dokumentu honen bitartez, eraikigarritasun hori eremuan antolatzen da.

ALEGAZIO ETA EKARPENAK

Getariako Portuko Antolamenduko Plan Berezia dokumentua aztertuta, Getariako Udalaren izenean eranskinean doan alegazio eta ekarpenak aurkezten ditu (guztira hamahiru alegazio dira), eta hauek Getariako Portuko Antolamenduko Plan Berezia dokumentuan jasotzea eskatzen du.

Getarian,

Alkateak



Getariako Udala
Alkatea

ALKATEAK
digitalki sinatuta

Izenpe ziurtagiria 

HARITZ ALBERDI ARRILLAGA
2021/02/15

EUSKO JAURLARITZA – LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA – LURRALDE
PLANGINTZA, HIRIGINTZA ETA HIRI BERRONERATZE ZUZENDARITZA – 01010 – GASTEIZ



Getariako Udala

Eranskina

Getariako Portuko Antolamenduko Plan Berezia dokumentuari Getariako Udalak aurkezten dituen alegazioak (guztira hamahiru dira):

LEHENENGOA.- UDALAREN IKUSPEGIA ETA HAUSNARKETA PLAN BEREZIAREN HELBURUEI BURUZ

I. ARRANTZA ETA ITSAS MERKATARITZA DIRA GETARIAKO INDUSTRIA NAGUSIAK

Getariako portua antolatzeko planak egungo errealitatea onartzetik abiatuta etorkizuna marraztu behar du. Gaurdanik epe ertain-luzera Getariako portuak izan behar duen bilakaera irudikatu behar du. Helburuak zehaztu, irtenbideak identifikatzeko.

Getaria eta Itsasoa. Getariak beti izan du itsasorako joera. Itsasoari lotuta eraiki du bere nortasuna eta izaera. Arrantza eta itsas-merkataritza izan dira bertako ekonomiaren motorra. Hainbat mendeetan balea arrantzak zeresan handia izan du udalerraren ekonomian eta azken hamarkadetan, **artisansu-arrantza eta baxurakoak**. Gainera, azken hauek dira ere gure tokiko elikadura sistemak eguneko arrainarekin hornitzen dituztenak.

Hori gutxi ez eta Getariako portua babes portu paregabea da, segurua eta sarrera egokia duena. Bertatik, mariñel "famatu" asko sortu dira; besteak beste, Juan Sebastian Elkano eta Domingo Bonaetxea.

Aurrekoari jarraikiz, eta azken urteetan arrantza-ontzidiaren beheranzko joera begi-bistakoa bada ere, Getariako portua euskal kostaldeko baxurako arrantzako portu garrantzitsuenetako izaten segitzen du. Lurraldean errotutako lanpostuak, tokiko ekonomia eta sektoreari lotutako industria jasotzen dituen portua izaten segitzeko **gain-behera datorren joera aldaketa ezinbestekoak ditu Getariako portuak**.

Horretarako, moila zaharreko arrantzako dartsenen **ur-geruzaren erabilera baxurako eta artisau arrantzarako mantentzea nahitaezkoa da**. Etorkizunean, dartsena honen inguruan ezar daitezkeen erabilerek, artisau eta baxurako arrantzaren inguruan sortzen den ekonomiarekin lotura zuzena izan behar dute. Hala nola, arrainaren lehenengo edo bigarren transformazioko erabilerak ezartzeko eraikinak, itsas berrikuntzako eta teknologiko ekosistema etab.

II. AISIALDIKO ARRANTZA

Getariako herritarren artean oso errotuta dago aisialdiko arrantza. Arrantza mota hau tamaina txikiko itsasontzietan burutzen da, 8 m.ko luzera baino txikiagoa duten txalupetan, eta gertuko espeziak arrantzatzen dira autokontsumorako, txibiak, arrai txikiak...

Herritar multzo anitza da arrantza mota hau egiten duena. Batetik "beteranoak" daude, itsasoan lan egin duten Getariarrak jubilatuta ostean lortzen den kategoria delarik, bestetik, bestelako herritarrak daude, itsasoa maite eta itsas kultura hau bizirik mantentzen saiatzen diren pertsonak dira.



Getariako Udala

Getariako portuak, eta bertan dauden instalazioek, herriaren kultura, izaera eta nortasuna ezaugarritzen dituena izaten jarraitu behar du. Amarralekuek Getariaren idiosinkrasiari erantzun egokia eman behar diote eta beraz, bide eman itsasoaren inguruan bere historia idatzi duen herriari.

Dauden plaza kopuruek herriko eskaerari erantzun egokia emateko gaitasuna dute, baina modu egokian ordenatzea nahitaezkoa da.

III. UR KIROLETAKO JARDUERAK

Aurrekoari jarraikiz, portuan garatzen diren kirol-jarduerek ere, **herriak bere dituen itsas-aktibitateei erantzun egokia emateko balio behar du, hala nola, arraunketa, urpekaritza, surfa etab.**

IV. LURRALDE ANTOLAKETAKO GIDALERROETAKO HELBURUAK (LAG)

2019an onartutako dokumentuaren II. eranskinean jasota dauden gidalerroen aplikazioari dagokionez, bereziki azpimarratu nahi ditugu hauetako hainbat idazten ari den plangintzan duten eraginagatik, **Lehenengo eranskinean** jaso ditugu.

V. KOFRADIA ZAHARRA ETA ERAIKITA DAUDEN ERAIKINEN ZAHAR BERRITZEA

Kofradia zaharraren eraikinak, udal-planeamenduan udal-babesa eduki arren, Eusko Jaurlaritzak, eraikin hau, Euskal Autonomia Erkidegoko monumentu izendatzeko proposatutako kultura-ondasunen artean dago. Paisaia ikuspegitik eta herriko historian duen garrantziagatik, behin eta berriz errepikatzen da berau zaharberritzeko nahia eta beharra (paisaia plan desberdinetan jasota dago, Urjola Kostako Udalen Elkarateak Europan egindako proposamena ere ezaguna da Portu Agintaritzan, etab.)

Getariako udalak 2020. urteko martxoaren 10an, parte hartze prozesu bat egin zuen eraikin honetan aurrera eraman daitezkeen erabilerak aztertzeko. Bertan herritarrak, eragile publikoek eta pribatuek parte hartu zuten (udala, mankomunitatea, herriko eta eskualdeko enpresak...) **Bigarren eranskinean** ondorioak atxikitu dira. Bertan ikus daiteke, parte hartzaileen nahia, kofradia zaharrea, itsasoari lotutako jarduera ekonomiko tradizionalak eta berritzaileak ezartzea dela, Europako irizpide berriekin bat eginez (digitalizazioa, ekonomia urdina etab.)

Eusko Jaurlaritzako plangintza estrategia guztiek, bai Bultzatu 2050k, bai Agenda Euskadi 2030 estrategiak, baita Lurralde Antolaketako Gidalerroek ere, eraikin eta eremu degradatuen birgaitzea lehenesten dute, eraikin berriak eraiki aurretik. Herriaren jarraikortasuna bermatzen duelako, dakartzan onura guztiekin:

- Genero ikuspegitik, herri barruko hutsuneak eta gunek ilunak ekiditen dira.
- Turismo eta paisaia ikuspegitik, inguruari balio erantsia ematen dio.
- Ondarearen ikuspegitik, Euskal herriko ondare kulturala balioan jartzen da.
- Osasun ikuspegitik, garrantzi historikoa, kulturala edo memoria kolektibokoa duten lekuak kontserbatzea eta/edo hobetzeak gizarte ongizatean eragin nabarmena dauka.



Getariako Udala

Horregatik, Udalak, eraikin berriak eraiki aurretik, daudenak birgaitzea lehenestea eskatzen dio Portuko agintaritzari, herri konpaktua eta erabilera aniztasuna bultzatuz.

VI. ENERGIA ALORREAN AUTOSUFIZIENTZIA BULTZATZEA

Oso interesgarria eta txalotzekoa iruditu zaigu 1.2.1 artikulua. «XIV Portua» eremuaren “kalifikazio xehatuko” araubidearen formulazioan honakoa txertatzea:

“Portuko azpiegiturak (dikeak), IP

*Zona hauetako eraikuntza orokorrean erregulatuta dago portu-legeriaren aplikaziotik ateratzen diren baldintza orokorren bitartez. **Berariaz baimentzen da azpiegitura energetikoak ezartzea ikerketarako eta energia ekoizteko.**”*

Energia autosufizientzian sakontzea ezinbestekoa dela irizten diogu eta **eraikinetan ere, energia produkzioko azpiegiturak baimentzea eta irizpide bioklimatikoak bultzatzea eskatzen dugu**, LAGetako energia alorreko gidalerroetan jasotakoaren haritik.

VII. ALDAKETA KLIMATIKOARI EGOKITU ETA MITIGAZIORAKO ESTRATEGIAK

Itsas-mailaren igoerari aurre egiteko estrategiak ere “naturan oinarritutako konponbideetara” egokituta egoteko aukera ere jasotzea beharrezkoa ikusten dugu.

Era berean, itsas-mailaren igoerak portuko eremu urbanizatuan izan dezakeen eragina espezifikoki aztertzea garrantzitsua deritzogu, Eusko Jaurlaritzak dituen proiektzioak kontutan hartuz. Eraikita dauden eraikinak babesteko neurri bereziak hartu beharko balira eta eraikin berriak hainbat eremutan eraikitzearen egokitasuna aztertzeke.

VIII. PAISAIARI BURUZKO UDAL PLANGINTZA

Getariako udalak urte luzeak daramatza herriko paisaia indartzeko planak idatzi eta ekintzak definituz. Plangintza hauetan Portuko eremuak berebiziko garrantzia dauka eta bertako jardueren planifikazioan kontuan hartu beharrekoak dira.

2012ko urtean Getariako Udalak Getariako Hirigunea eta eraginpeko guneak Edertzeko Ekintza Plana mamitu zuen, Basquetour-en gidaritzapean, zeinaren bitartez tokiaren nortasuna berreskuratzea eta hautatutako Destinoaren eskarmentua eraldatzea zuen helburu, egungo errealitatera egokituz, bere-bereak dituen ezaugarri eta nortasuna galdu gabe.

Basquetourren plana oinarritzat hartuz eta irizpide berriak jasoz, 2016an bukatu zen Getariako paisaiaren ekintza plana. **Hirugarren eranskinean** atxikita dago, plan honetan proposatutako ekintzen atala.

2018ko irailaren 27an, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 132/2018 DEKRETUA, irailaren 18koa, zeinaren bidez behin betiko onartzen baita Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) eremu funtzionalaren lurralde-plan partzialaren 2. aldaketa, paisaiaren zehaztapenei buruzkoa.

Hau honela izanik, portuko eremuan egingo diren ekintzek Getariako paisaia orokorrean duten eragina kontutan hartzea eskatzen dugu.



Getariako Udala

IX. TURISMO EREDUARI BURUZKO HAUSNARKETA

2020an, **TURISMO IRAUNKORREKO PLAN**aren idazketa hasi zuen udalak. Horretarako enpresa bat kontratatu zen eta momentu honetan diagnostiko eginda dago. **Laugarren eranskinean** diagnostiko osoa ikus daiteke, bainahemen pasarte garrantzitsuenetako bat transkribatuko dugu.

“Alojamenduak Getarian:

Getariako jomuga turistikoak 68 alojamendu turistiko eta etxebizitza turistiko ditu egun eta 623 plaza jaso ditzake.

Eskaintzaren barruan 7 hotel (147 plaza), 4 nekazal etxe (58 plazarekin), 4 pentsio (79 plazarekin), 3 landetxe (62 plazarekin), 3 aterpetxe (80 plazarekin) eta 5 apartamentu turistiko (42 plazarekin) eta 2016. urtetik gaur egun arte, 41 Etxebizitza turistiko erregistratuak ditu 155 plaza jasotzeko ahalmenarekin.

(...)

GETARIAKO BILAKAERA PLAZA TURISTIKO KOPURUA 1000 BIZTANLEKO¹



¹ -Adierazle hau kalkulatzeko, EAE kokatuta dauden eta jarduera nagusia bidaiarien ostaturik duden turismo establezimenduetako lekuak hartzen dira kontuan eta Gobernuak Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren jabetzako establezimenduen Erregistroan inskribatuta daudenak. Hori dela eta, turismo establezimendu mota hauek hartzen dira kontuan: hotelak eta pentsioak, apartamentu turistikoak, kanpinak, nekazalturismoa eta landetxeak.

- Hauek establezimenduaren ostaturik ahalmena adierazten dute eta dauden ohe finkeko kopuruaren baliokidea da, ohe osagarriak ez dira barne sartzen.

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2017	2019
BIZTANLEAK GETARIAN	2.474	2.474	2.487	2.557	2.609	2.651	2.801	2.846

Eustat-ek eskaintzen dituen datuen arabera, 1000 biztanleko Getaria dauden alojamendu plaza kopuruaren indikatzailearen bilakaera gorantzko joera izan du. Naiz eta biztanleriak azken 20 urteetan gora egin duen, alojamendu plaza kopuruak ere gora egin du, hortaz geroz eta alojamendu turistiko plaza gehiago daude biztanleko eta iraunkortasun indikatzaileak



Getariako Udala

kontutan hartuta esan daiteke, momentu honetan Getaria aholkatutakoa baino zenbateko handiago duela alojamendu plazei dagokionean.”

Indikatzailea	Gorria	Beltza	Berdea
1000 biztanleko alojamendu turistiko plaza kopurua	100 baino handiago	50 eta 100 artean	50 edo gutxiago

** Indikatzailearen taula: 2017an, Fernández Villarán, Espinosa Uresandi, Goytia Prat y Abad Galzacortak eginiko ikerketan oinarritzen da.*

Beraz, erabilerak arautzerakoan errealitate hau kontuan hartzeko eskatzen diogu Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari.

X. IRISGARRITASUN LEGEA BETETZEA

Abagune hau aprobetxatuz, udalak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari abuztuan onartutako irisgarritasun plana helarazi nahi diogu. Plan honek, portuko eremuan ere hainbat ekintza proposatzen dituenez, berauen egokitasuna aztertu eta kontuan har dezan, aurrerago egingo dituen ekintzetan, hala badagokio. Planak duen informazio kopuruagatik, ohiko korreoz helaraziko diogu sailari.

BIGARRENA.- ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA

LEGE OINARRIAK

Udalerraren egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektuei edo plangintzei egin beharreko hizkuntz ebaluazioak arautzeko, bi legezko oinarri hauek hartu behar dira kontuan: batetik, 2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, eta, bestetik, 179/2019 dekretua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 7. artikuluko 7. apartatua garatzeko.

2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa

2/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak hau ezartzen du 7. artikuluko 7. apartatuan:

7.– Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira.

Bestetik, 179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak hau ezartzen du dekretuaren sarreran hizkuntz ebaluazioen helburuei buruz:

[...] udal-eskumeneko planek eta proiektuek euskararen eta gaztelaniaren erabileran izan dezaketen inpaktua aztertu eta ebaluatu nahi da. Horrek aukera ematen du balizko hizkuntza-inpaktuari aurrea hartzeko eta hura zuzentzeko neurriak proposatzeko, gerta litezkeen inpaktu kaltegarriak saihesteko edo minimizatzeko, bai eta kasu bakoitzean egoera bideratzeko



Getariako Udala

irtenbiderik egokiena bilatzeko ere. Helburua aukerarik onena baliatzea da, plan edo proiektu bakoitzak hizkuntzen erabileraren normalizazioan izan ditzakeen ondorioak aztertuta.

50. artikuluan, ebaluatu behar diren planak eta proiektuak daude zerrendatuta:

1. *Udalek behean zerrendatzen diren plan eta proiektuen hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko dute, bai eta horien funtsezko aldaketenak ere, baldin eta euskararen erabileran eragina izango badute:*

a. *Planak:*

Hiri-antolamenduko plan orokorrak.

Plangintza orokorra bateragarri egiteko plana.

Sektorizatze-plana.

Plangintzako arau subsidiarioak.

Plan partzialak.

Hiri-antolamenduko plan bereziak.

Turismo-planak.

b. *Proiektuak:*

Merkataritzagune handiak eraikitzeako proiektuak.

Industria-guneak eta teknologia-parkeak eraikitzeako proiektuak.

2. *Aurreko zerrendan aipatutakoez gain, arnasguneetako euskararen erabileran eragina izan dezaketen plan eta proiektu guztiak ebaluatu beharko dira.*

Halaber, dekretu beraren Laugarren xedapen gehigarriak horrela dio, Udal-
eskumenekoak ez direla-eta beste administrazio publiko batzuek onartzekoak diren
planen eta proiektuen hizkuntza-inpaktuari buruzko ebaluazioari dagokionez:

*Udalerrien egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen udalerriaz gaindiko
eremuko proiektuak eta planak onartzeko prozeduran, planak eta proiektuak
ebalutzeko eskumena daukan udal-organoak haien hizkuntza-inpaktua aztertuko
du. Halaber, izan litezkeen inpaktu negatiboak saihesteko eta prebenitzeko
inguruabarrak eta neurriak proposatuko ditu, eta, behar izanez gero, konpentsazio-
neurriak ere bai.*

Horrez gain, dekretuaren 4. artikuluan, definizioen atalean, hau zehazten da:
«*Arnasguneak*»: *eremu geografiko eta soziofuntzionalak zeinetan euskara
dakiten pertsonen ehunekoa % 80tik gorakoa baita, eta euskaraz aritzea
ohikoa eta orokorra baita gizarte-harremanetan.*

**EUSKO JAURLARITZAREN EKONOMIAREN ETA GARAPEN ETA
AZPIEGITURA SAILAREN GETARIAKO PORTUAREN PLAN BEREZIKO HIZKUNTZ
EBALUAZIOAN JASOTAKOA**



Getariako Udala

Getariako Portuaren Plan Bereziko hizkuntz ebaluazioan "Gogoeta batzuk" titulupean honako hau dago idatzita (123. orrialdean):

Adituen eta erakundeen iritziz (UEMA, Soziolinguistika Klusterra...), udalerrri bat euskalduntzat joko bada, euskara-indizeak % 70etik gorakoa izan behar du.

Getariaren indizea % 87koa da. Horrenbestez, parametro horren arabera, udalerrri euskalduna da.

Era berean, 179/2019 Dekretuan ezarritakoaren arabera, euskararen bizi-espazioak edo arnas-guneak eremu geografiko eta soziofuntzionalak dira, zeinetan euskara dakiten pertsonen ehunekoa % 80tik gorakoa baita, eta euskaraz aritzea ohikoa eta orokorra baita gizarte-harremanetan ere, gaztelania ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea alde batera utzi gabe.

Getarian euskaldunak % 84,34 dira. Horrenbestez, % 80tik gorakoa da. Era berean, etxeetako erabileraren datuak erreferentziatzen hartuta, euskara herritarren % 71,59k erabiltzen dute. Hartara, pentsa daiteke euskara ez dela gizarte-harremanetako ohiko hizkuntza orokorra (bai, horretarako ere, % 80tik gorakoa izan beharko luke).

Inguruabar horietan, eta abiapuntutzat hartuta arnas-gunetzat jotzeko % 80ko ehunekoa gainditu behar dela bi alderdi horietan (euskararen ezagutzan eta erabileran), ondoriozta daiteke, a priori, Getaria ez dela arnas-gunea, alderdi horietako batean ehunekoa betetzen den arren bestea ez baita betetzen.

GETARIAKO UDALAREN ALEGAZIOAREN ARRAZOIBIDEAK

179/2019 Dekretuak arnas-guneen definizioa ematen duenean euskara dakiten pertsonen ehunekoa %80tik gorako adierazlea zehazten du (hizkuntza ezagutza), baina ez du deus aipatzen erabileraren edo beste adierazleen gainean.

Interpretazio okerra egiten da txostenean honakoa adieraztean (azpimarratuta eta beltzez):

*Getarian euskaldunak % 84,34 dira. Horrenbestez, % 80tik gorakoa da. Era berean, etxeetako erabileraren datuak erreferentziatzen hartuta, euskara herritarren % 71,59k erabiltzen dute. Hartara, pentsa daiteke euskara ez dela gizarte-harremanetako ohiko hizkuntza orokorra **(bai, horretarako ere, % 80tik gorakoa izan beharko luke).***

Ezagutzari dagokionez, Getariak %80tik gorako ehunekoa du. **Getarian euskaldunak % 84,34 dira, eta euskararen indizea %87,255 da** (Euskararen indizea = Euskararen ezagutza + la euskaldunen indizea/2). Indize horiek argi uzten dute euskaraz aritzea ohikoa eta orokorra dela gizarte harremanetan.

Erabilerari edo hizkuntzarekin lotutako beste adierazleei dagokienez, dekretuan deus aipatzen ez den arren, 2011ko datu hauek ditugu:

- Lehen hizkuntza: Getariarren %74,40k euskara dute lehen hizkuntza (EUSTAT 2011).
- Etxean erabiltzen duten hizkuntza: Getariarren %69,72k euskara bakarrik erabiltzen dute etxean, eta euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak gehituta %78,15 dira (EUSTAT 2011).
- Getariako kaleetan behatutako elkarrizketen %76,6 euskaraz izan dira (Getariako kale erabileraren neurketa, 2019). Gainera, behatutako adin tarte guztietan euskara da hizkuntza nagusia:



Getariako Udala

- 2-14 urte artekoen %80k hitz egiten du euskaraz.
- 14-25 urte artekoen %82,4k hitz egiten du euskaraz.
- 25-64 urte artekoen %76,2k hitz egiten du euskaraz.
- 65urtetik gorakoen artean %79,4 k hitz egiten du euskaraz.

Indize horiek argi uzten dute euskaraz aritzea ohikoa, orokorra eta nagusia dela gizarte harremanetan.

Dena dela, arloko aditu baten irizpidea kontuan hartzeko, Getariako Udalak Udalerri Euskaldunen Mankomunitateari (UEMA) eskatu dio datuak aztertzeko eta ondorioztatzeko Getariako udalerria arnasmune den edo ez, eta atxikita dago UEMAREN erantzuna (**Bostgarren eranskinean**). Bertan UEMAK argi eta garbi adierazi du Getaria arnasmune dela.

179/2019 legearen 4. artikuluan jasotzen den moduan, ezagutzaren talaia %80 gorakoa da Getarian. Hortaz legean ezarritakoa kontuan hartuz **arnasgunetzat har dezakegu Getaria ezbairik gabe**, horrek izan ditzakeen ondorio guztietarako.

Ondorioz, 179/2018 legeak 50. artikuluan ezartzen duen moduan *arnasmuneetako euskararen erabileran eragina izan dezaketean plan eta proiektu guztiak ebaluatu beharko dira*. Beraz, **legeak hala behartuta PROIEKTUAREN EBALUAZIO OSOA** egin behar da.

HIRUGARRENA.- Eremuaren mugapenari dagokionez.

Dokumentua aztertuta eremuaren mugapena ez dator bat Arau Subsidiarioen XIV. HA "PORTUA" eremuaren mugapenarekin ezta Eusko Jaurlaritzaren portu mugarekin ere. Bestetik, Arau Subsidiarioetako XII. HA "SAN ANTON AZPI" eremuan kokatutako eraikinen zatiak ere Plan Berezi honen eremuan sartuta daude. NR.3, NR.4, NR.5, NR.6 eta D.A.R izenak daramatzaten eraikin zatiak dira hain zuzen ere.

Arau Subsidiarioetan Getariako Alde Zaharreko AU. XIV PORTUA eremuan, Ipar ekialdeko itsas labarrak sartuta daude. Denok jakitun gara, mendi labar hauek jasaten duten higadurak ze arazo sortzen dituzten, ikusi besterik ez dago, 2011 urtean Iribarrena kaleko etxeekin gertatutakoa.

Horregatik, Getariako udaletik, **instituzio arteko kolaborazioan** oinarrituz, ezinbestekoa deritzogu **eremuan sartu eta hirigintza antolamentu xehatua ematea lur-zati honi**, izaera publikoa emanez eta lursailak lortzeko prozesuak finkatuz.

Kontuan izan behar da, Portuko sarrera irteera guztiak itsas labar ezengokor hauen azpian eraiki zirela eta higadurak sortutako kalteak zuzenean jasaten dituela portu eremuak.

Azkenik, XII HA "San Anton Azpi" eremuko eraikinak Plan Berezi honen eremutik ateratzea eskatzen dugu. Gainera 1.3.2 Artikuluan xedatzen denez, NR.3, NR.4, NR.5 eta NR.6 eraikinak titularitate pribatukoak direnez, desjabetze espediente bidez bereganatuko ditu Portuko agintaritzak. Honek sor ditzakeen arazoak aurreikusita, eraikin bat bi jabetza desberdinetan banatuko dela, alegia, **Arau Subsidiarioetako mugaketa mantentzea eskatzen dugu zonalde horretan.**



Getariako Udala

Ondorioz, Portuko Plan bereziak, Getariako Arau Subsidiarioen XIV. HA "PORTUA" eremuarekin bat egin dezala eskatzen dugu.

LAUGARRENA.- PORTUAN EMAN DAITEZKEEN ERABILERA BAIMENDUAK ETA DEBEKATUAK.

1.- Ostatu erabilera

Turismo jasangarriko plana idazteko diagnostikoan oinarrituz eta LAGetako 2. eranskineko 24.2 artikuluan xedatutako jarraituz, N.R uretako eta olgetako erabileretan eta M erabilera mistoko eremuetan, **alojamendu erabilera debekatzea eskatzen dugu.**

2.-Aparkalekuak

Getaria herri txikia bada ere bisitarien etorrera handia jasaten du. Eskaintzen dituen zerbitzuak askotarikoak dira baina mugatuak. Kalitatea eskaintzen segitzeko jada etortzen denari ongi erantzun behar zaio eta azken urteetako ahalegina horixe izaten ari da.

Beraz, Goiko aparkalekuak ordenatzeko bada, eta oinezko espazio irekiak sortzeko, lurpeko aparkalekuren bat egitea ondo iruditzen zaigu. Baina dagoenari beste 555 aparkaleku gehitzea baztertu behar da herriak jada jasaten duen bisitari kopurua altua baita.

Bestetik, eremua birgaitzeko helburuarekin, lurrazpiko aparkalekuak egin aurretik dauden eraikinak horretarako erabiltzea ere proposatzen dugu.

Beraz, aparkalekuei dagokionez honako eskatzen dugu:

- a) NR eremuetan, onartutako erabilera gisa eraikinen solairu guztietan baimentzea
- b) Lurrazpiko aparkalekuak eraikitzea, gainazalean aparkaleku kopuru berberaren desagertzearekin, zuzenean lotuta egotea.

3.- Bainu erabilera

LAGeko osasun gidalerroetan jasotzen den legez, Garrantzi naturala, historikoa, kulturala edo memoria kolektibokoa duten lekuak kontserbatzea eta/edo hobetzea bultzatu behar da, era berean memoria inmaterialaren parte kontsidera daiteke, herriko haurrek portuan bainatzeko ohitura hori, belaunaldiz belaunaldi transmititua izan delako.

Arrantza erabilerako eremuetan, Kofradia zaharraren dartsenan hain zuzen ere, bainu erabilera baimentzea eskatzen dugu.

4.-Energia autoabastezimentua

Eraikin guztietan, energia autoabastezimendurako instalakuntzak eraikitzea bultzatzea eskatzen dugu.

BOSGARRENA.- ERAIKUNTZA UNITATEEI BURUZ

1.-NR.7 eraikuntza unitatea

Gaur egun ez da eraikin hori existitzen, beraz, ez dugu uste, sotoetako inguru horrek zahar berritzeko daukan behararekin, eraikin berri bat hor proposatzea egokia denik.



Getariako Udala

2.-B eta C eraikuntza unitateak M.1 erabilera mistoko eremuan.

Bia eraikin hauen eraikigarritasuna handitzea proposatzen dugu atzeko partetik. VP.6 eremuraino haztea egokia dela uste dugu, hala gaur egun dagoen hutsune bat bete eta kale jarrai eta seguruago bat osatuko litzatekelako.

3.-M2 eraikuntza unitatea (Tintalekua)

Ez dago grafikoki definituta eraikuntza unitate hau eta ezinbestekoa deritzogu definizio hori izatea. Batez ere, atikoaren kokapena zehaztu eta nahitaezko lerrokadurak eta gehieneko lerrokadurak finkatzeko.

4.-NR.1 eraikuntza unitatea

Udalak, eraikin hau handitzeko hondartza txikiagotzea ez du ondo ikusten. Herritarrek urte guztian zehar erabiltzen duten gunea da (igeri egiteko, deskantsatzeko, jolasteko), familiak gehien pilatzen diren lekua da, eguzkiak gehien jotzen duena.

Nahiz eta hondartza artifiziaia izan, gaur egun, herriko espazio libre kuttunenetakoa izanik, udalak espazio hau mantentzea ezinbestekoa dela ikusten du.

Are gehiago, eraikin honetarako aurreikusten diren erabilera asko Tintalekuko eraikinean garatzea posible ikusten delarik. Baita, erabilera hauek ezartzeko, Tintalekuan hiru (3) solairu eta atikoa egokitu behar badira ere.

SEIGARRENA.- Memoriaren 4. Atala. BESTE IRIZPIDE ETA HELBURU BATZUK, INDARREKO ARAU SUBSIDIARIOETAN DAUDENEN OSAGARRIAK.

Atal honetan honakoa jasotzen da:

“Horrez gain, portuaren erabiltzaileek, Udalak eta abarrek orain arte planteatutako beste helburu batzuk jasotzen dira, sare-biltegi berria ezartzean duela gutxi gauzatutako ekintzaren ildotik:

- *Kirol-ontzientzako amarralekuen eskaintza hobetzea; ahal den neurrian, dagoen eskariari erantzuteko.*
- *Aisialdiko jarduerak egiteko eremu bat prestatzea, eta harrerako pantalan bat ezartzea bertan.*
- *Kofradia zaharraren kaian dauden eraikinak zaharberritu, baliarazi eta erabiltzea, eta zuzkidura-erabilerak eta hirugarren sektorekoak ezar daitezen sustatzea, portuaren premiei erantzuteko: ur-kiroletako jarduerentzako gunek eta tokiko klubak, portu-jardueri lotutako konponketa- eta salmenta-eremuak, ostatuak, jatetxeak, etab.; Kostaldee buruzko Legean eta horren Erregelamenduan ezarritako mugen barruan.*
- *Kirol-portuari eta Malkorbe hondartzari lotutako instalazioak eta eraikinak berrantolatzea, erantzun egokia emateko dauden askotariko jardueri, eta sor daitezkeen jarduera berrientzat ere erantzunak aurreikustea.*
- *Tintalekuko estalkiaren erabilera publikoa bermatzea, espazio libre moduan.*



Getariako Udala

- *Kai-azalera portu-jardueretarako hein handiagoan aprobetxatzeko aukera baloratzea, horretarako lurpeko edo altueran ezarritako aparkalekuak (aparkalekuen eraikina) aurreikusita.*

Getariako udalak, orain arte aipatzen diren arrazoiengatik, ez duela bat egiten hauetako helburu batzuekin adierazi nahi dugu.

Hala nola, ez du bat egiten honako eskari hauekin:

- * *Kirol-ontzientzako amarralekuen eskaintza hobetzea; ahal den neurrian, dagoen eskariari erantzuteko.*

Udalak moila zaharreko dartsena bere horretan mantentzea nahi du. Getariako portuak, eta bertan dauden instalazioek, herriaren kultura, izaera eta nortasuna ezaugarritzen dituena izaten jarraitu behar du. Amarralekuek Getariaren idiosinkraziari erantzun egokia eman behar diote eta beraz, bide eman itsasoaren inguruan bere historia idatzi duen herriari.

Dauden plaza kopuruek herriko eskaerari erantzun egokia emateko gaitasuna dute, baina modu egokian ordenatzea nahitaezkoa da.

Orain arte bezala, gutxienez, artisau eta baxurako arrantzaren presentzia bermatu eta bertako herritarren aisialdiko arrantzari lekua ziurtatzea ezinbestekoa dela uste dugu.

Gainera, baxurako, artisau arrantzako eta aisialdiko arrantzako ontzien presentziak, paisaian eta ondorioz, turismoan, duten eragin positiboa ere oso kontutan hartzekoa dela deritzogu.

Eran berean, Getariarren ondare inmaterialaren eta oroimenaren eremu garrantzitsu bat dela gogorarazi nahi du udalak. Ondare inmaterial horretan txertatzen delarik, portuan bainua hartzeko ohitura.

- * *Aisialdiko jarduerak egiteko eremu bat prestatzea, eta harrerako pantalan bat ezartzea bertan.*

Udalak ez du eskari honen berririk, beraz ez da udalak finkatutako helburu bat.

- * *Kirol-portuari eta Malkorbe hondartzari lotutako instalazioak eta eraikinak berrantolatzea, erantzun egokia emateko dauden askotariko jarduerai, eta sor daitezkeen jarduera berrientzat ere erantzunak aurreikustea.*

Udalak ez du beharrik sentitzen eraikin berriak egiteko eremu honetan. Udalarentzat, egoera kaxkarrean dauden eraikin zaharrak biziberritzea dela lehentasuna. Eremu horretan Tintalekua birgaitu ondoren, espazio beharra suertatuko balitz orduan baloratu beharko litzateke eraikin berriak eraikitzeo aukera.

Eta partzialki bat egiten du honako hauekin:

- * *Kai-azalera portu-jardueretarako hein handiagoan aprobetxatzeko aukera baloratzea, horretarako lurpeko edo altueran ezarritako aparkalekuak (aparkalekuen eraikina) aurreikusita.*

Aipatu bezala, aparkalekuak eraikinetan kokatzea ez zaio gaizki iruditzen Getariako udalari, baina aparkaleku kopurua, besterik gabe, handitzearekin ez



Getariako Udala

dator bat. Honek, turismo eredu jasangarriarekin talka egiten duelako zuzenezuzenean.

** Kofradia zaharraren kaian dauden eraikinak zaharberritu, baliarazi eta erabiltzea, eta zuzkidura-erabilerak eta hirugarren sektorekoak ezar daitezen sustatzea, portuaren premiei erantzuteko: ur-kiroletako jarduerentzako guneak eta tokiko klubak, portu-jardueri lotutako konponketa- eta salmenta-eremuak, ostatuak, jatetxeak, etab.; Kostaldeei buruzko Legean eta horren Erregelamenduan ezarritako mugen barruan.*

Aipatu bezala, udalak industria erabilerak lehenestea nahiko luke eraikin honetan, parte-hartze pozosuan jaso zen bezala. Eta batez ere, alojamendu erabilerak debekatzea ezinbestekoa dela uste dugu.

Azkenik, udalaren eskari zehatza da honako hau:

** Tintalekuko estalkiaren erabilera publikoa bermatzea, espazio libre moduan.*

Horregatik, atal honetan, udalaren eskakizunak, beste eragile batzuen eskarrietatik bereizteko eskatzen dugu.

ZAZPIGARRENA.- Adituek alternatibei buruz egindako balorazioa, eta Getariako portuko beste aukera osagarri batzuk, lehenago ere planteatuak

Memoriaren 6.2 atalean honakoa jasotzen da:

"...irtenbiderik egokiena "4." Alternatiba dela..."

Getariako udalak adierazi nahi du bere ustez, alternatibarik egokiena 1goa dela. Getariako portuak, orain dagoen eran, ahalmena baitu gaur egungo itsas flotari erantzuteko eta baita orain dela urte batzuetako errealitateari aurre egiteko ere.

ZORTZIGARRENA.- 6.3. ALTERNATIBEN ANALISIAREN ONDORIOA

Memorian honakoa jasotzen da:

"Aurreko guztia ikusita, kontuan hartuta gaur egungo egoera eta planaren denbora-muga, eta lehentasuntzat hartuta portuak ingurumenaren eta funtzionaltasunaren arloetan beharrezko duen birkualifikazioa, portua handitzea aurreikusten zuten alternatibak baztertu dira, lehenik eta behin. Jakina, ildo beretik, Ubirin portu berria egiteko aurreikuspena ere baztertu da, beste esparru bat delako, gainera.

*Izan ere, ez da hauteman arrantza-portua handitzeko premiarik, eta gaur egungo dartsenak berriz antola daitezke, ur-kiroletako premiak modu egokiagoan hartzeko. Ondorioz, lehenengo hurbilketa honetan, 3. eta 4. alternatibak baztertu dira, **jatorriz aukeren zirriborroan aintzat hartu ziren arren, baina 4. alternatiba portua handitzeko aukera egokia dela berresten da.**"*

Udala ez dator bat "jatorriz aukeren zirriborroan aintzat hartu ziren arren, baina 4. alternatiba portua handitzeko aukera egokia dela berresten da" espresioarekin. Ubiriko aukera ez dela baztertzen adierazten duelako.

Udalaren ustez, argi eta garbi adierazi behar da 4. aukera **guztiz baztertuta** geratzen dela.



Getariako Udala

BEDERATZIGARRENA.- 6.7. URBANIZAZIOA ETA HIRI-ZERBITZUEN AZPIEGITURAK ETA II.4.1 PLANOA

6.7.5 Energia elektrikoaren banaketa

“...zerbitzu berriei eta, bereziki, ezarriko diren pantalan berriei.”

Aipatu bezala, Udalak ez du aisialdirako pantalan berriak eraikitzeko beharrik ikusten, horrek artisau arrantza eta baxurako arrantzaren desplazamendua dakarrelako.

Gainera, plangintza osoan ez da pantalan berrien eraikuntza aipatu ere egiten, soilik esaldi hau eta II.4.1 planoan agertzen dira pantalan berriak, ur banaketa sarea marrazterakoan.

Beraz, hau akats bat dela ulertzen dugu eta planetik ezabatzea eskatzen dugu, II.4.1 planoan agertzen diren pantalan berriein batera.

HAMARGARRENA.- ERAIKIGARRITASUNAREN HAZKUNDEAK, ARAU SUBSIDIARIOETAKO %15 MUGA BETETZEN DUELA JUSTIFIKATZEA ETA BESTE BATZUK.

a) Eraikigarritasuna justifikaztea

Dokumentuan zehar ez da justifikatzen %15eko hazkundera betetzen dela. Gainera, Plan Berezi honen eremuak ez duenez Arau Subsidiarioetako eremuarekin bat egiten, hazkunde betetzen den edo ez baloratzeko Arau Subsidiarioen eremuan kokatzen diren eraikinez arabera egin beharko litzatekela uste dut, San Anton Azpi eremuko eraikinak kanpoan utziz.

b) Jarduketa arloak eta motak.

Dokumentuan ez da zehazten zein diren jarduketa isolatuak eta zein zuzkidura-jarduketak.

c) Estandarrak betetzea

Ez da definitzen, hirigintza aktuazio honek 123/2012 DEKRETUA, uztailaren 3koa, hirigintzako estandarrei buruzkoa betetzen duen hala ez.

HAMAIKAGARRENA.- “B DOKUMENTUA. ORDENANTZA ERREGULATZAILEAK.”

a) 1.3.3 Artikulua. Ordenazioz kanpo dauden eraikinak.

Memoriako 11. Atalean, ez dagoela ordenazioz kanpo dagoen eraikinik aipatzen da.

Aldiz atal honetan, egoera orokorrean azaltzen da ordenazioz kanpo dauden erabilera eta eraikinen definizioa. Eraikinen bat egoera honetan dagoela identifikatuta baldin badago, espresuki jasotzea eskatzen dugu.

b) 1.3.6 Artikulua. Partzelazio baldintzak

Partzelazio baldintzak gehiago zehaztea eskatzen dugu, definizio honekin, guztiz subjeliboa izango bai da eman daitekeen erantzuna eta hirigintza jardunak arautua izan behar du eta guztientzat berdina.

c) 1.3.8 Artikulua. Lehen erabilerako baimenak emateko baldintzak



Getariako Udala

C Dokumentuan ez dira zehazten zein izango diren egin beharreko urbanizazio lanak.

- d) **2.1.1.3 artikulua. Zona eraikigarriei aplikatzekoa den eraikuntza- eta erabilera-araubidearen formulazioa**

Aipatzen diren mugak nola betetzen diren espresuki justifikatzea eskatzen da.

- e) **2.1.1.5.3 artikulua. Eraikuntza-kalitatearen eta tratamendu estetikoaren baldintzak**

Paisaia planetan oinarrituta definizio zehatzagoa egitea eskatzen dugu, eremu honek, herriko irudi orokorrean duen inpaktuagatik.

HAMABIGARRENA.- “C DOKUMENTUA. ETAPA PLANA.”

Eta planean argi eta garbi ikusten da, lehenik eta behin eraikin berriak egitea dela Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailaren nahia.

Behin eta berriz, azaldutako arrazoiengatik, dauden eraikinen zaharberritzea izan dadila lehentasuna eskatzen dugu. **Horretarako etapa plana aldatu eta kofradia zaharraren ingurua zaharberritzea eta Tintalekua birgaitzea programaren hasieran jartzea eskatzen dugu.**

HAMHIRUGARRENA.- “E DOKUMENTUA. GENERO IKUSPEGIA.”

LAGetako gidalerroek aipatzen dutenez, *Espazio publikoan segurtasuna bermatzea, plangintza-prozesuetan, parte hartzeko prozesuen esparruan, gizarte-taldeen arriskutsutzat edo ez-segurutzat jotzen dituzten puntuak identifikatuz.*

Plangintza honetan faltan botatzen da elementu horien identifikazio lana, hutsik dauden eraikinen identifikazioaz haratago.



Dokumentu honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo Interneteko orrialde honetara:
<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/39/AAAA2KZB2.9PCP>